
Bi txitodun sai arrearen kabia Baztanen (Nafarroan)

Two chickens griffon vulture nest in Baztan (Navarre)

IKER ELOSEGI ONANDIA & MIGEL MARI ELOSEGI IRURTIA



Itxusiko Haitzak Baztanen (Nafarroan) daude, Artzamendi izeneko mendia eta Aritzakun errearen artean. Hareharri eta konglomeratuzko harkaitz-labar hauek itsas-mailatik gora 300-600m bitarteko altura hartzen dute eta orientazio nagusia hegoaldekoa da. Itxusiko Haitzetako sai arre kolonia Nafarroako iparraldeko handienetakoa da. Kolonia hau oso aspalditik da ezaguna, 1893 ko liburu batean (Folin, 1893) saiak ehizatze leku egoki bezala agertzen bait da. Geroztik ordea, eta ia mende batez, ezezagun bilakatu da zientzialarientzat, 1971 urtean berriro ere bertan saiak kumatzen direla baieztatu zen arte. Urte horretatik aurrera hurbileko jarraipena egin zaio Itxusiko sai-arre koloniarri.

Sai arreen kolonia honetako kabi guztiek letra eta zenbakiz osatutako kodea dute. 2008ko sai arreen zentsoa egiterakoan, C-23 kabian bi arrautz ikusi ziren. Lehen behaketa otsailaren 14ean egin zen. Sai arre heldua txitatzen ari zen, baina une batez altxa eta baztertu zenean bi arrautzak bistan utzi zituen. Aldamenean zegoen helduak mokoarekin zertxobait mugitu zituen arrautzak, eta berriz etzan zenean biak azpian hartu zituen. Espezie honetan ezohiko behaketa izanik, kumatze-garaian zehar C-23 kabiari hurbileko jarraipena egin zitzaion. Honela, 12 bisitetan 40 orduz behatu zen C-23 kabia, eta 6 aldiz helduak aldizkatzen eta 9 aldiz helduak kumeak bazkatzen ikusi ziren.

Otsailaren 24ean bi sai arre heldu ikusi ahal izan ziren C-23 kabian. Bat txitatzen ari zen bitartean beste batek adar bat ekarri zuen kabia atontzeko eta kabian zegoena ordezkatu zuen. Azken hau zutitu zenean eta etorritakoa etzan zen arte, 3-4 minutuz ederki ikusi ahal izan ziren bi arrautzak kabian. Aurreko txandan bezala, helduak arrautzak zertxobait mugitu zituen, eta gero biak azpian hartuz etzan zen berriro.

¹ *Sociedad de Ciencias Aranzadi / Aranzadi Zientzia Elkarteak.
Zorroaga gaina 11 • 20014 Donostia / San Sebastián*

BI KUME SORTZEN DIRA C-23 KABIAN

Martxoaren 30ean C-23 kabian bi txito gazte zeuden. Zuri-zuriak ziren, eta 6-7 eguneko adina kalkulatu zitzairen. Egun honetan euria bizi-bizi bota zuen eta sai arre ugari harkaitzetara bildu ziren babes-bila. C-23 kabiaren inguruan, zazpi metroko erradioan lau sai arre heldu bildu ziren. Kabian etzanda zegoen helduak lepoa luzatuz uxatzeko keinuak egin zizkion kabitik bi metrora zegoen beste sai bati, baina azkenean bertan gelditu zen atertu zuen arte.

Apirilaren haseran (apirilak 2, 5 eta 6an), C-23 helduetako bat beti zegoen kabian txitoak babesten, haiengandik batere aldendu gabe. Denbora gehiena txitoen gainean etzanik pasatzen zuen, eta horrek azpian zuena ikustea galerazten zuen. Aldizka ordea, heldua altxa eta zentzuz aldatzen zen bitartean barnekaldea bistan uzten zuen zenbait segunduz. Halaber, bigarren heldua kabian zegoena ordezkatzera heltzen zenean ere txitoak bistan gelditzen ziren. Aldizkatzea, espezie honetan gertatu ohi den bezala, laburra izaten zen. Bigarren heldua kabira iritsi ahala, txitoen gainean zegoena altxa eta berehala aireratzen zen, besteari lekua utziz.

C-23 kabiko bi helduak erraz bereizteko modukoak ziren: batek lepo inguruko lumatxak argiak zituen, eta disdira argia mokoan. Besteak aldiz, lepo inguruko lumatxak gorritzak zituen, eta litekeena da erabat heldua ez izatea. Bigarren heldua kabira iritsi eta minutu gutxiren buruan txitoak bazkatzen hasten zen. Hauxe zen kabian zeuden bi txitoak ikusteko une hoberena. Helduak bi kumeak bazkatzen zituen, batzutan banaka eta bestetan biak batera. Bazkaketa, ohi duten bezala, lehenik oka egin eta ondoren moko txitoari hurbilduz ematen zen, eta iraupen aldakorra zuen, baina 10 minutu (gutxienez 5 eta gehienez 16 minutu) ingurukoa izaten zen. Behin bi kumeak bazkatuta hauen gainean etzaten zen sai heldua. Garai hartan txitoek ez zuten berebiziko grinarik erakusten bazka bereganatzeko .



1. Irudia.- Bi arraultzak txitatzen
Figure 1- Hatching of two eggs

TXITO BAT BESTEA BAINO HANDIAGO AGERTZEN DA



2. Irudia.- Bi kumeak eta heldua

Figure 2- The two chickens with an adult

Apirilaren erdialdera, lehen lumak agertzen hasi zitzaizkien C-23 kabiko bi txitoei, eta txuriak baziren ere, lepoan eta hegalean lumak hazten hasi zitzaizkien. Txito bat bestea baina zertxobait handiagoa zen, baina alde txikia zuten. Txitoak txikiak izan ziren bitartean pake-pakean egon ziren elkarrekin, normalki bata bestearen kontra, baina handitzen hasi zirelarik, oldarkortasun zantzu batzuk ikusi ziren haien artean.

Apirilaren 12an lehenengoz ikusi zen txito bat bestea mokoz jotzen. Bost kolpe eman zizkion mokoarekin buruan, baina honen ondoren, bi txitoak berriz ere elkarrekin egon ziren erabateko lasaitasunean.

Bazkaketan, helduak banan-bana edo biei batera ematen zien janaria. Horretarako, bi txitoak helduaren zangoen aurrean, alde berera begira jartzen ziren eta bakoitzak, helduaren mokoaren alde batetik hartzen zuen janaria. Honek aurrea paparretik mokora botatzen zuen bazka, eta gero ahotik txikiek hartzen zuten. Puska handiren bat ateratzen zenean, tiraka aritzen ziren bi kumeak ahalik eta gehien eskuratzeko. Batzutan ordea, helduak berriro irensten zituen puska horiek, eta berriz ere oka egin, kumeek irentsi arte. Kumeak bazkatu ondoren, helduak bi txitoen burua garbitzen zuen mokoarekin. Normalean jan ondoren lo gelditzen ziren kumeak.

Apirilaren erdialdera (15 eta 16ean), bi txitoen arteko aldea nabarmentzen hasi zen. Oraindik helduetako bat ia beti gainean zuten. Aurreko egunetan ez bezala, txitoak mugitzen hasten ziren, bereziki eguzkia kabira sartzen zenean, hau da, goizeko 9 t'erdia aldera. Lodiena zen lehenik zutitu eta hegoak zabaltzen hasten zena, baina gero txikia ere mugitzen hasten zen. Bazkaketak beti heldua eta bi txitoak alde berdinerara begira ematen ziren. Ez zegoen borroka handirik, eta txitoek helduari mokoka eta garraisika eskatzen zioten bazka. Batzutan oso puska handiak iresten zituzten.

Apirilan aurrera egin ahala (apirilak 20 eta 24) txitoak kozkortuta zeuden eta heldua erabat txitoen gainean ez bazegoen ere, denbora luzez egoten zen hauen aldamentean. Txitoak lodituta zeuden, handiena batipat, eta honek garbi ageri zuen lepo aldean lepokoa izanzen zena. Bi kumeen arteko aldea gero eta handiagoa zen, eta bistakoa zen handia txikia baino askoz ere gehiago mugitzen zela, hegoak zabalduz eta luzatuz. Txito handienak, etzaten zenean, txikiaren gainean jartzen zuen burua, eta tarteka batak besteari mokokadaren bat ematen zion, behar bada, handiak txikiari maizago. Helduei bezala, txikiei eguzkia hartzea gustatzen zitzaien,

eta baita garbitzea ere. Helduek lehen bezala bazkatzen zituzten kumeak, oka egin eta mokoak hurbilduz, baina orain txikiek gogo handiagoa jartzen zuten bazka eskuratzeko. Helduak burua behehitzen zuenean txikiak mokoaren bila abiatzen ziren, eta helduak burua altxatzen bazuen, txikiak lepoa luzatu eta bazka-eske bizian jarraitzen zuten. Nabaria zen biek jaten zutela, baina baita lodiak gehiago eskuratzen zuela ere. Bazkatu ondoren helduak bere mokoz bi txitoak ferekatzen zituen eta lumak garbitu ohi zizkien.

KUMEAK DESAGERTZEN DIRA

Maiatzaren 5eko bisitan, C-23 kabian txito bat besterik ez zegoen, ondoan lepo txuriko heldua zuelarik. Txitoa izugarri lodia zegoen, eta kabia betetzen zuela zirudien. Bere hegaletako luma beltzak ateratzeko puntuan zeuzkan eta oso lasai zegoen. Ez dakigu bietatik zein zen gelditu zen txitoa. Bietan handiena behar lukeela uste dugu, baina aurreikuspenetan lumaia aurreratuagoa izanen zuela espero zen. Behar bada, beste kume batekin hazi izanak honen hazkuntzan eragina izan zuen eta ohi baino egun gehiago behar izan zituen lumatzeko, eta behar bada, kume txikiena zen habian gelditu zena.

Ekainaren 8an C-23 kabian ez zegoen kumerik. Goizean goiz heldu bat zegoen bertan, seguruenik gaua bertan pasaturik, baina txitorik ez. Hortaz, apirilaren 24a eta ekainaren 8a bitartean, bi kumeak galdu ziren.

2008a urte txarra izan da Nafarroan sai arreen ugalketarako, iazkoa bezala, eta Itxusiko koloniako produktibitatea 0,3koa izan zen, alegia, 10 kabitik, 3ek soilik lortu zuten kumea ateratzea. C-23 kabian, berriz, bi arrautzetatik, kume bat ere ez zen atera. Aipatu beharrekoa da 2008ko udaberria bereziki euritsua izan zela Nafarroan. Martxoa, apirila eta maiatza osoak hartuta, Baztandik hurbil dagoen Doneztebeko estazioan 715mm ur bildu ziren metro karratuko, eta beraz, oso udaberri euritsua izan zen, azken 40 urteetan euritsuena. Honek, noski, saien ugalketan eragina izango zuen.

C-23 kabia harroka-aterpe batean dago, oso ongi babestua, eta ondoan beste sai arre kabirik ez duenez, ez daiteke pentsa inguruko beste sai arre-kabi batetik bigarren arrautza eraman ahal izan denik. Segurtatzerik ez dagoena, ordea, sai arre eme batek edo biek jarri zituzten C-23 kabiko bi arrautzak. Behaketetan, bi heldu besterik ez ziren ikusi (biak ongi bereizteko modukoak gainera), eta hortaz, bi arrautzak eme bakar batek jarri zituela dirudi, baina hori argitzeko, ezinbestekoa litzateke azterketa genetikoa egitea, eta bi kumeak galdu zirenez, iada ez da posible hori argitzea.

BI ARRAUTZ EDO BI TXITODUN KABIAK SAJETAN

Gyps fulvus espezieak normalki arrautz bakarria erruten du. Hala ere, bi arrautz zituzten kabi bakar batzuk behatu ahal izan dira eta hauek dira argitaratu edo adituei egindako informazio-eskaeretan jakin izan ahal diren kasuak :

- Segoviako probintzian, kasu bana 1974 aintzin (Fernandez 1994) eta 2005 ean (G. Herrero, via F.J. Fernandez y Fernandez-Arroyo)
- Sardinian kasu bat bederen (Ruiu 1981).
- Frantziako Massif Centraleko Grands Causses'etan, sai arrea galdu eta espeziea berriro sartu ondoren sortutako kolonietan, bi arrautzetako 5 kasu ikusi izan dira (horietako 4 bikote berak errunak!), batean kume bat airutuz. (Sarrazin et al. 1996, Cosson et al. 2002).
- Golaneko kolonia batean, 4 kasu 1994 eta 2001 artean. 2000 urtean bi txito hilik atzeman zituzten kabi batean eta 2001ean bi txito sortu baziren, bat baizik ez zen airatu. Kasu honetan hiru ziren kabian egoten ziren helduak (Ferro 2001, Gamla Nature Reserve 2001).
- Halaber, 2005ean, Sizilian sai arrea berreskuratzeko programa baten ondorioz sortutako kolonia batean, kabi batean bi txito sortu ziren baina bakarria airatu zen. (Nebrodi Regional Park Staff 2005, Di Vittorio in Raptor-Conservation group, 2008).

Beste espezie batzuei dagokienez, Hego Afrikako Gyps coprotheres espeziean (Gyps fulvusetik biziki hurbilekoa dena), bi txito dituzten kabien kasu batzuk ezagutzen dira. 1947-1983 artean, 7000 txito anillatu ziren eta 1983 urtean atzeman zuten lehenengoz, bi txito zituen kabi bat, nahiz eta bi arrautzetako kabi gehiago ikusi ziren. Hango ikerleen arabera bi arrautzetako kabiak %1 baino gutxiagotan gertatzen dira (8 kasu 811 kabietan). Orokorkiako, Hego Afrikako Ipar Ekialdeko kolonietan 20000 kabi kontrolatan 5 aldiz kontrolatu izan da kabi batek 2 txito izatea. Aldiz, bi txito airatzea ez da sekula segurtatu ahal izan. Gyps coprotheres espeziean eme batek bigarren arrautza lehena egin eta bi egunetara errutea frogatua izan da (P. Benson-ek perts. komunikatua).

BIBLIOGRAFIA

- Anonimo. Hallado un nido de buitres con dos huevos cerca de las Hoces del Duraton. El adelantado de Segovia, 15-4-2005 : 19
- COTON C., LECUYER P., CHIRON P. (LPO Grands Causses) 2002. Suivi des populations de vautours en 2001. Grands Causses. Vautour infos, 5 : 1-2
- FERNANDEZ y FERNANDEZ-ARROYO F.J. 1994 : El alimoche en el Refugio de Rapaces de Montejo. Biblioteca, estudio e investigacion, 9 : 135-182
- FERNANDEZ y FERNANDEZ-ARROYO F.J. 2004 : Hoja informativa sobre el Refugio de Rapaces de Montejo, 27. 220 p.

- FERRO M. 2001. Two Eurasian Griffon chicks hatch in one nest at Gamla, Israel. *Vulture News*, 45 : 58
- FOLIN (Marquis de). 1893. *Chasses et pêche zoologiques*. Librairie J.B. Baillièrre et fils. Paris. 332 p.
- Gamla Nature Reserve, 2001 : *Griff-online*, august 2001
- Nebrodi Regional Park staff. 2005. Reintroduction of the Vulture *Gyps fulvus* in Nebrodi Regional Park, Sicily. *Vulture News*, 53 : 26
- RUIU D. 1981. *Caro Grifone*. Edagricole. 130 p
- SARRAZIN F., BAGNOLINI C., PINNA J.L., DANCHIN E. 1996 : Breeding biology during establishment of a reintroduced Griffon vulture *Gyps fulvus* population. *Ibis*, 138 : 315-325

